**PLIEGO DE CLÁUSULAS ADMINISTRATIVAS Y DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS PARTICULARES QUE REGIRÁN LA CONTRATACIÓN POR CONCURSO, DE LA PRESTACIÓN DE SERVICIOS EN MATERIA DE RECAUDACIÓN EJECUTIVA DE LOS TRIBUTOS Y OTROS INGRESOS DE DERECHO PÚBLICO DEL AYUNTAMIENTO DE ONDARROA**

**CLAUSULAS DEL CONTRATO:**

**1. RÉGIMEN JURIDICO DEL CONTRATO**

El presente procedimiento se regirá:

- Por las Cláusulas contenidas en este Pliego.
- Por la Ley de Bases del Régimen Local de 2 de Abril de 1985, modificada por la Ley 11/1999 de 21 de abril, Ley 57/2003, de 16 de diciembre de Medidas para la Modernización del Gobierno Local y Real Decreto Legislativo 781/1986, de 18 de Abril, por el que se aprueba el Texto Refundido de las Disposiciones legales vigentes en materia de Régimen Local.
- Por Real Decreto Legislativo 2/2000, de 16 de Junio, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas.
- Por el Real Decreto 1098/2001, de 12 de octubre, por el que se aprueba el Reglamento General de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas.
- Las Normas de Derecho Privado serán aplicables como derecho supletorio para resolver las cuestiones a que pueden dar lugar la interpretación efectos, cumplimiento y extinción del contrato, que no puedan ser deducidas por las disposiciones acabadas de citar.
- La prestación del servicio de colaboración se realizará conforme a lo dispuesto en la normativa tributaria vigente, teniéndose en cuenta la Norma Foral de Haciendas Locales, la Norma Foral General Tributaria, así como el Reglamento de Recaudación del Territorio

**ONDARROAKO UDALEKO ZERGEN ETA ZUZENBIDE PUBLIKOKO BESTELAKO DIRU-SARREREN DIRU-BILKETA EXEKUTIBOAREN ZERBITZU-KONTRATAZIOA ARAUTUKO DUTEN ADMINISTRAZIO-BALDINTZEN ETA XEDAPEN TEKNIKO PARTIKULARREN AGIRIA. KONTRATAZIO-PROZEDURA LEHIAKETA BIDEZ EGINGO DA.**

**KONTRATUAREN KLAUSULAK:**

**1.- KONTRATUAREN ARAUBIDE JURIDIKOA**

Prozedurak honako hauek izango ditu oinarri:

- Honako Agiri honetan jasotako klausulak.
- 1985eko apirilaren 2ko Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legea (apirilaren 21eko 11/1999 Legeak aldatua), Tokiko Gobernua modernizatzeko neurriei buruzko abenduaren 16ko 57/2003 Legea, eta apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretua, Toki Araubidearen arloan indarrean dauden legezko xedapenen testu bategina onesten duena.
- Ekainaren 16ko 2/2000 Legegintzako Errege Dekretua, Herri Administrazioen Kontratuen Legearen testu bategina onesten duena.
- Urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretua, Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra onesten duena.
- Horrez gain, Zuzenbide Pribatuko Arauak ordezko zuzenbide gisa aplikatu ahal izango dira, baldin eta auziren bat sortu eta lehen aipatutako xedapenen bidez ondorio argirik ateratzerik ez balego, kontratua interpretatzean, horren ondorioetan, betetzean eta kontratua eteteko gorabehera guztietan.
- Lankidetza-zerbitzu hau indarrean dagoen zerga-araudiari jarraiki egingo da; halaber, kontuan hartuko dira Toki Ogasunen Foru Araua, Zergen Foru Arau Orokorra, Bizkaiko lurralde historikoko Diru-bilketaren Araudia eta gaiari dagokion udal-araudia.

Histórico de Bizkaia, y de la Normativa Municipal aplicable en la Materia.

## 2.- OBJETO DEL CONTRATO

El contrato que en base al presente pliego se realice, tendrá por objeto la prestación de servicios en materia de recaudación ejecutiva de de los tributos u otros ingresos de derecho publico del Ayuntamiento de Ondarroa, de conformidad con las siguientes especificaciones:

- **Implantación**: Se habilitará por el Ayuntamiento un espacio suficiente para la prestación adecuada del servicio si así fuese necesario.
- **Medios materiales**: El servicio se realizará en horario vespertino, con la aportación por el contratista de los medios materiales que de común acuerdo se consideren necesarios.
- **Medios Humanos**: El adjudicatario deberá contar con medios personales propios para la prestación del servicio de atención al público, que pueda atender adecuadamente las necesidades de los contribuyentes.
- **Euskera**: Toda la gestión y trámites del procedimiento, incluida la atención-información al público, se realizará en los dos lenguas oficiales de la CAPV.
- **Documentación:** La documentación generada en las labores resultará de propiedad del Ayuntamiento de Ondarroa.
- Este servicio de colaboración en materia de recaudación ejecutiva no incluye la jurisdicción contencioso administrativa.
- No se incluye la gestión en periodo ejecutivo de las multas por infracciones de tráfico vial.

**La actividad que desplegará el adjudicatario comprende**:

- Mantenimiento de un banco de datos sobre deudas y deudores pendientes, cargos, cobros, datas e insolvencias.

## 2.- KONTRATUAREN XEDEA

Agiri hau oinarritzat hartuta egingo den kontratuaren xedea Ondarroako Udaleko zergen eta zuzenbide publikoko bestelako diru-sarreren betearazte-bidezko diru-bilketarako zerbitzua ematea izango da, eta ondoren datozen zehaztapenen arabera burutuko da:

- **Ezarpena**: beharrezkoa bada, zerbitzu egokia emateko behar den gunea atonduko du Udalak.
- **Baliabide materialak**: zerbitzua arratsaldez emango da eta enpresak behar beste baliabide material ipiniko ditu, alde biek adostasunez egoki deritzetenak, hain zuzen.
- **Giza baliabideak**: esleipendunak jendaurreko arreta-zerbitzua emateko giza baliabide propioak izan beharko ditu, eta zerbitzu horrek behar bezala erantzun beharko die zergadunen eskaerei.
- **Euskera**: prozeduraren kudeaketa eta izapide-egintza guztiak –jendaurreko informazioa eta arreta barne– EAEko bi hizkuntza ofizialetan egingo dira.
- **Agiriak:** eginkizun horietan guztietan sortutako dokumentazioaren jabetza Ondarroako Udalarena izango da.
- Diru-bilketa exekutiboko gaietarako lankidetza-zerbitzu honetan ez da sartuko administrazioarekiko auzien jurisdikzioa.
- Bide-zirkulazioko arau-hausteengatik emandako isunen exekuzio-aldiko kudeaketa ez da sartuko.

**Esleipendunak honako jarduera hauek bete beharko ditu:**

- Datu-banku bat egunean izatea, non zorrak eta zordunak jasota agertuko diren eta kargu, kobrantza, data eta ordaintezintasun guztiei buruzko datuak.

- Suministro de información de las modificaciones jurídico-tributarias con los contribuyentes, como altas y bajas en padrones, cambio de domicilio tributario, etc.

- Información al público y atención a los contribuyentes.

- Notificación reglamentaria de las providencias de apremio que se dicten por el órgano competente del Ayuntamiento Ondarroa, y en general, cuantos trámites, gestiones y notificaciones sean necesarios para la adecuada instrucción de los expedientes desde su inicio hasta su finalización.

- Elaboración de informes y propuestas de resolución de recursos, contra los actos administrativos de la vía de apremio

- Búsqueda y seguimiento de bienes o derechos de los deudores que pudieran ser susceptibles de embargo.

- Confección de los mandamientos de anotación preventiva de embargo, cancelación de cargas y demás documentos necesarios para las actuaciones recaudatorias ante los Registros Públicos, así como frente a cuantas personas, naturales o jurídicas, públicas o privadas, se hallen, por imperativo legal, implicadas en el procedimiento.

- Confección de los expedientes de fallidos para su aprobación por el órgano competente del AYUNTAMIENTO DE ONDARROA, incluyendo detalle de las deudas afectadas y de la documentación acreditativa de la falta de bienes o el ignorado paradero del deudor.

- Ingreso de los cobros realizados en la cuenta restringida que se habilite para tal fin.

- Llevanza de los Libros de Contabilidad reglamentariamente establecidos.

- Cálculo, liquidación, notificación en su caso, y cobro de los intereses reglamentariamente devengados.

- Las funciones de dirección, supervisión y fiscalización serán desempeñadas por las

- Zergadunen aldaketa juridikoen eta zerga-aldaketen informazioa ematea, hala nola: erroldetako altak eta bajak, zergadunaren helbide-aldaketak, etab.

- Jendaurreko informazioa eta zergadunekin zuzeneko arreta izatea.

- Ondarroako Udaleko organo eskudunak ematen dituen premiamendu-probidentziak erregelamendua betez jakinaraztea, bai eta,oro har, espedienteak hasieratik bukaerara arte behar bezala gauzatzeko beharrezkoak diren izapide-egintza, kudeaketa eta jakinarazpen guztiak ere.

- Premiamendu-bideko administrazio-egintzen aurka jarritako errekurtsoei buruz ebazpenak emateko beharrezko txostenak eta ebazpen-proposamenak egitea.

- Bahitu daitezkeen zordunen ondasunak eta eskubideak bilatzea eta horien jarraipena egitea.

- Honako agiri hauek prestatzea: bahimenduaren aurreneurrizko ohar-aginduak, kargak baliogabetzeko aginduak eta, oro har, diru-bilketa egintzak gauzatzeko behar beste dokumentu, hala Erregistro Publikoetan aurkezteko nola, legearen aginduz, prozeduran inplikatuta dauden pertsona natural, juridiko, publiko edo pribatuengana jotzeko.

- Kobratu ezin zaien pertsonei buruzko espedienteak prestatzea, ONDARROAKO UDALEKO organo eskudunak onar ditzan; espediente horietan zehaztuko dira zein diren afektatuta dauden zorrak eta, hala dagokionean, ondasunik eza, edo zorduna non dagoen jakin ezinik bada, hori egiaztatzen duten dokumentuak

- Egindako kobrantzak horretarako prestatuko den kontu murriztuan sartzea.

- Arauzko kontabilitate-liburuak eramatea.

- Araubidez ezarritako interesak kalkulatzea, likidatzea, jakinaraztea, hala dagokionean, eta kobratzea.

- Zuzendaritza-, ikuskapen- eta fiskalizazio-funtzioak ONDARROAKO UDALEKO agintariek eta

autoridades y personal funcionario del AYUNTAMIENTO DE ONDARROA

funtzionarioek beteko dituzte.

**3.- PLAZO DE DURACIÓN**

El plazo de duración del presente contrato será de DOS AÑOS, siendo susceptible de DOS prórrogas de un año cada una, por mutuo acuerdo, antes de la finalización de aquél o de su prorroga, sin que la duración total del contrato incluidas las prórrogas, pueda exceder de CUATRO años, debiendo ser expreso el acuerdo de prórroga.

**3.- IRAUPENA**

Kontratu hau gauzatzeko epea BI URTEKOA izango da. Dena den, elkarren artean ados jarriz gero, epeak urtebeteko BI luzapen izan ditzake, kontratua edo luzapena bukatu baino lehen; hala eta guztiz ere, kontratuaren iraupen osoa, luzapenak barne, ezingo da LAU urte baino luzeagoa izan. Horrez gain, luzapen-erabakiak berariazkoa izan beharko du.

**4.- PRECIO DEL CONTRATO**

El precio del contrato que inicialmente no puede ser cuantificado, se devengará en función de los trabajos realizados y de los resultados concretos que se obtengan por las gestiones y servicios llevadas a cabo por el adjudicatario. La cuantía que se estima como precio máximo para los dos años de contrato, será de 100.000 euros (IVA incluido).

Por dicha labor percibirá:

A) Recaudación en vía ejecutiva:

Hasta el 25% sobre el principal de las cantidades cobradas.

B) Intereses de demora:

Hasta el 50% de los intereses de demora cobrados en período ejecutivo, en concepto de contraprestación por la gestión realizada por el adjudicatario para su cálculo, liquidación, notificación y cobro.

En las retribuciones previstas en las cláusulas A y B anteriores se entenderán excluidas las cuotas tributarias del Impuesto sobre el Valor Añadido (I.V.A); si bien en las facturas presentadas por el contratista deberán repercutirse, como partida independiente.

C) Costas del procedimiento.

Los costes del procedimiento que en virtud de la Normativa Tributaria vigente y del Reglamento de Recaudación del Territorio Histórico de Bizkaia, sean exigibles al deudor, se liquidarán e

**4.- KONTRATUAREN PREZIOA:**

Kontratuaren prezioa, hasiera batean, ezin da kuantifikatu, esleipendunak egingo dituen lanen arabera eta burutuko dituen kudeaketa eta zerbitzuen bidez lortutako emaitza zehatzen arabera sortuko baita. Nolanahi ere, kontratuan ezarritako bi urteetarako, gehienezko 100.000 euroko kopurua, BEZ barne, kalkulatu da.

Lan horiengatik honako kopuru hauek jasoko ditu:

A) Betearazte-bidezko diru-bilketa:

Kobratutako diru-kopuruen printzipalaren %25era.

B) Berandutza-interesak:

Betearazte-bidean kobratutako berandutza-interesen %50era arte, kontzeptu hauen kontraprestazioagatik: interes horien kalkulua, likidazioa, jakinarazpena eta kobrantza gauzatzeko esleipendunak egindako kudeaketa.

Aurreko A eta B klausuletan aurreikusitako ordainsarietan, ez dira Balio Erantsiaren gaineko Zergaren (B.E.Z.) kuotak sartuko; dena den, kontratistak aurkeztutako fakturetan eragina izango dute, kontu-sail independentetzat.

C) Prozedura kostuak:

Indarrean dagoen legeriari eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Diru-bilketaren araudiari jarraiki, zordunari eskatu ahal zaizkion prozedura-kostuak esleipendunak berak zuzenean kitatu eta diru-sarrerak egingo ditu,

ingresarán directamente por el adjudicatario, no estando sometidas a control presupuestario, si bien Tesorería e Intervención podrán fiscalizar en cualquier momento la procedencia de sus cobros.

Las costas en que se hubiera incurrido que no puedan ser cobradas a los deudores, correrán a cargo del Ayto. de Ondarroa, facturándose en partida independiente, incluyendo los justificantes de su pago por el adjudicatario, pudiendo el Ayuntamiento, solicitar aclaración si, a su juicio, no estuvieren suficientemente justificadas.

inolako aurrekontu-kontrolik gabe; dena den, Diruzaintzak edota Kontu-hartzailetzak kobrantza horien guztien jatorria fiskalizatu ahal izango dute, edozein unetan.

Baldin eta zordunei kobratzea ezinezkoa suertatuko balitz Ondarroako Udalak bere gain hartuko ditu sortutako kostuak; horrelakoetan baina, aparteko kontu-sail batean fakturatuko dira eta esleipendunak eginiko ordainketaren egiaztagiriak erantsi. Nolanahi ere, Udalak argibideak eskatuko ditu, bere iritziz behar bezala justifikatuta ez badaude.

## 5.- FINANCIACIÓN

Para sufragar el precio del contrato hay prevista financiación con cargo al presupuesto del año en curso, y en su caso el Ayto de Ondarroa se compromete a consignar presupuestariamente los recursos necesarios para atender las obligaciones económicas que se deriven de la ejecución del contrato.

## 5.- FINANTZAZIOA

Kontratuaren prezioa ordaintzeko, aurtengo aurrekontuaren kargura izango den finantzazioa aurreikusi da; horrez gain, Ondarroako Udalak konpromisoa hartu du kontratua betetzeko ezinbesteko diren betebehar ekonomikoei aurre egiteko beharrezko diren baliabideak aurrekontuan esleitzeko.

## 6. FORMA DE PAGO

El Ayuntamiento de Ondarroa abonará mensualmente al adjudicatario la cantidad correspondiente a los servicios de asistencia realizados durante el mes anterior, contra la presentación y conformidad del correspondiente documento probatorio. El contenido de estas facturas mensuales deberá desglosarse en las distintas unidades que se indicaban en la cláusula cuarta

## 6. ORDAINTZEKO MODUA

Ondarroako Udalak hilero ordainduko dio esleipendunari aurreko hilean honek burutu dituen laguntza-zerbitzuei dagokien kopurua; horretarako, dagokion froga-dokumentua aurkeztu beharko du, eta Udalak ontzat eman. Hileko faktura hauen edukia banakatu beharko da, laugarren klausulan adierazitako unitateen arabera.

## 7. REVISIÓN DE PRECIOS Y SUBCONTRATACIÓN

No procederá la revisión de precios, ni la subcontratación, dada la naturaleza y características del objeto del contrato.

## 7. PREZIOEN BERRIKUSPENA ETA AZPIKONTRATATZEA

Kontratu-gaiaren jatorria eta ezaugarriak direla-eta, ez dago prezioak berrikusterik, ez eta azpikontratatzerik ere.

## 8. GARANTÍAS

En razón al importe de la licitación no se establece garantía provisional.

El adjudicatario del contrato, a fin de garantizar el cumplimiento de las obligaciones contraídas, está obligado a depositar una garantía definitiva por importe de 4.000 euros.

## 8. BERMEAK

Lizitazioaren zenbatekoa dela-eta, ez da behin-behineko bermerik ezarriko.

Kontratuaren esleipendunak 4.000 euroko behin betiko bermea jarri beharko du, derrigorrean, hartutako betebeharrak bete egingo dituela bermatzeko.

El plazo para la constitución de la citada garantía será de quince días hábiles contados a partir del día siguiente al de la notificación de la adjudicación del contrato y se constituirá en la Tesorería Municipal en cualquiera de los medios establecidos en el artículo 36.1 del Real Decreto Legislativo 2/2000, de 16 de Junio, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas.

Aipatutako bermea osatzeko epea hamabost astegunekoa izango da, kontratuaren esleipenaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita. Bermea Udal Diruzaintzan osatuko da, Herri Administrazioen Kontratuen Legearen testu bategina onesten duen ekainaren 16ko 2/2000 Legegintzako Errege Dekretuaren 36.1 artikuluan ezarritako edozein baliabide erabiliz.

**9. EJECUCIÓN DEL CONTRATO**

La ejecución del contrato se realizará a riesgo y ventura del contratista.

El contrato se ejecutará con sujeción a las cláusulas contenidas en el presente pliego, de acuerdo con las instrucciones que para su interpretación diese al contratista el Ayuntamiento de Ondarroa.

**9. KONTRATUAREN EXEKUXIOA**

Kontratua kontratistaren arrisku eta menturaz burutuko da.

Kontratua gauzatzeko agiri honetan agertzen diren baldintzetan adierazitakoa bete beharko da eta agiria interpretatzeko Ondarroako Udalak kontratistari emandako jarraibideak aintzakotzat hartuta.

**10.-OBLIGACIONES DEL CONTRATISTA**

10.1 Obligaciones Generales derivadas de la prestación del Servicio de Asistencia.

a) El adjudicatario vendrá obligado a prestar el servicio en la forma establecida en el presente pliego y en su oferta, así como de conformidad con las instrucciones fijadas por el Ayuntamiento de Ondarroa.

b) Deberá asimismo, mantener el carácter reservado de las actuaciones realizadas, para con terceros ajenos al Ayuntamiento de Ondarroa

c) La empresa adjudicataria deberá aportar los medios materiales y humanos necesarios para la correcta realización del servicio, bien con medios propios, o mediante la contratación con tercero.

10.2 Obligaciones Laborales.

El contratista está obligado al cumplimiento de las disposiciones legales vigentes en materia laboral, de Seguridad Social y de seguridad e higiene en el trabajo, quedando el Ayuntamiento de Ondarroa exonerado de responsabilidad por este incumplimiento

**10.- KONTRATISTAREN BETEBEHARRAK**

10.1 Aholkularitza zerbitzua ematean sortutako betebehar nagusiak.

a) Esleipendunak agiri honetan ezarri bezala eta berak egindako eskaintzan zehaztutako moduan eman beharko du zerbitzua; halaber, Ondarroako Udalak ezarritako jarraibideak bete beharko ditu.

b) Horrez gain, burututako jarduerak isilpean gordeko ditu eta ezin izango die horien berri eman Ondarroako Udaletik kanpoko hirugarren pertsonei.

c) Enpresa esleipendunak beharrezko diren baliabide materialak eta giza baliabideak ezarri beharko ditu zerbitzua ondo gauzatzeko, bai baliabide propioak erabiliz, bai hirugarrenak kontratatuz.

10.2 Laneko betebeharrak.

Laneko, Gizarte Segurantzako eta laneko segurtasun eta higienearen arloetan indarrean dauden legezko xedapenak bete beharko ditu kontratistak; kontratistak ez baditu xedapen horiek betetzen, ordea, ez dio inolako erantzukizunik ekarriko Ondarroako Udalari.

**11.- RESPONSABILIDAD DEL CONTRATISTA POR LOS DAÑOS CAUSADOS A TERCEROS DURANTE LA EJECUCIÓN DEL CONTRATO**

El contratista será responsable de los daños y perjuicios que se causen como consecuencia de las operaciones que requiera la ejecución del contrato, de acuerdo con lo dispuesto en el Art. 97 del Real Decreto Legislativo 2/2000, de 16 de Junio, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas.

**11.- KONTRATUA BURUTZEAN HIRUGARRENEI ERAGINDAKO KALTEAK DIRELA-ETA, KONTRATISTAK DUEN ERANTZUKIZUNA**

Kontratua burutzeko egin behar diren eragiketen ondorioz sortutako kalte-ordainen erantzulea kontratista bera izango da, Herri Administrazioetako Kontratuei buruzko Legearen testu bategina onetsi zuen ekainaren 16ko 2/2000 Legegintzako Errege Dekretuaren 97. artikuluari jarraiki.

**12. MODIFICACIONES DEL CONTRATO**

El contrato podrá modificarse de conformidad con lo dispuesto en el Art. 101 del Texto Refundido de la LCAP y 102 del Reglamento General.

El Ayuntamiento podrá modificar el contrato, por razones de interés público, debido a necesidades nuevas o causas imprevistas, no teniendo derecho el contratista a indemnización alguna, sin perjuicio de lo que se establece en el Art. 214.c) del Real Decreto Legislativo 2/2000, de 16 de Junio, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas.

**12. KONTRATUAREN ALDAKETAK**

Kontratua aldatu ahal izango da, Herri Administrazioen Kontratuen Legearen testu bateginaren 101. artikuluan eta Erregelamendu Orokorraren 102. artikuluan xedaturikoaren arabera.

Udalak kontratua aldatu ahal izango du, interes publikoak, behar berriek edo ustekabeko gertaerek eragindako arrazoiak direla eta. Kasu horietan, kontratistak ez du inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango, eta ez dio Herri Administrazioen Kontratuen Legearen testu bategina onesten duen ekainaren 16ko 2/2000 Legegintzako Errege Dekretuaren 214.c) artikuluan ezartzen denari kalterik egingo.

**13. CAUSAS DE RESOLUCIÓN DEL CONTRATO**

Constituyen causa de resolución del contrato las establecidas en los arts. 111 y 214 del Real Decreto Legislativo 2/2000, de 16 de Junio, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas.

**13. KONTRATUA SUNTSIARAZTEKO ARRAZOIAK**

Kontratua suntsiarazteko arrazoi izango dira Herri Administrazioetako kontratuei buruzko testu bategina onetsi zuen ekainaren 16ko 2/2000 Legegintzako Errege Dekretuaren 111. eta 214. artikuluetan ezarritakoak

**14.- PRERROGATIVAS DEL AYUNTAMIENTO DE ONDARROA**

Corresponde al Ayuntamiento de Ondarroa las prerrogativas de interpretar el contrato, resolver las dudas que ofrezca su cumplimiento, modificarlo por razones de interés público, acordar su resolución y determinar los efectos de ésta, dentro de los límites y con sujeción a los requisitos y efectos establecidos en el Real Decreto Legislativo 2/2000, de 16 de Junio, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de

**14.- ONDARROAKO UDALAREN ESKUMENA**

Ondarroako Udalak izango du kontratua interpretatzeko eskumena, bai eta kontratua betetzean sortutako zalantzak argitzeko ere; horrez gain, herri intereseko arrazoiak direla-eta, kontratua aldatu ahal izango du, eta kontratua suntsitzeko eta horrek dituen ondorioak zehazteko ahalmena ere berak izango du. Horretarako, ordea, Herri Administrazioetako Kontratuei buruzko Legearen testu bategina onetsi zuen ekainaren 16ko 2/2000 Legegintzako Errege Dekretuan ezarritako

Contratos de las Administraciones Públicas.

Los acuerdos dictados al efecto pondrán fin a la vía administrativa y serán inmediatamente ejecutivos.

**15.- PROCEDIMIENTO Y FORMA DE CONTRATACIÓN**

La adjudicación del presente contrato se llevará a cabo por concurso abierto, de conformidad con lo previsto en los artículos 73.2 y 85 del Real Decreto Legislativo 2/2000, de 16 de Junio, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas.

**16. PRESENTACIÓN DE PROPOSICIONES**

Los licitadores presentarán sus proposiciones en las Oficinas del Registro General del AYUNTAMIENTO DE ONDARROA, en el plazo de QUINCE DÍAS NATURALES a partir de la publicación en el BOB, entre las nueve y las catorce horas de la mañana, en los días laborables.

A fin de estudiar debidamente las proposiciones, las bases del procedimiento se podrán examinar en la Secretaria General del AYUNTAMIENTO DE ONDARROA, durante las horas de oficina.
Los licitadores presentarán sus proposiciones en dos sobres cerrados que podrán ir también lacrados y precintados en la siguiente forma:

SOBRE PRIMERO:
Que se titulará: "PROPOSICIÓN PARA TOMAR PARTE EN LA CONTRATACIÓN POR CONCURSO ABIERTO **PARA LA PRESTACIÓN DE SERVICIOS EN MATERIA DE RECAUDACIÓN EJECUTIVA DE LOS TRIBUTOS Y OTROS INGRESOS DE DERECHO PÚBLICO DEL AYUNTAMIENTO DE ONDARROA**".

Se subtitulará "Documentación General" y contendrá:

a)Copia del DNI. del licitador. si fuese persona física o de quien suscriba la proposición en caso de ser una persona jurídica.

mugak, baldintzak eta ondorioak bete beharko dira.

Ondorio horretarako hartutako erabakiek amaiera emango diote administrazio-bideari, eta berehala betearaziko dira.

**15.- KONTRATAZIO-PROZEDURA ETA -MODUA**

Kontratu hau lehiaketa irekiaren bidez esleituko da, Herri Administrazioen Kontratuen Legeari buruzko testu bategina onartzen duen ekainaren 16ko 2/2000 Legegintzako Errege Dekretuaren 73.2. eta 85. artikuluetan ezarritakoa betez.

**16. PROPOSAMENAK AURKEZTEA**

ONDARROAKO UDALEKO erregistro nagusiaren bulegoetan aurkeztu beharko dituzte lizitatzaileek euren proposamenak. Proposamenak lanegunetan aurkeztu beharko dira, goizeko bederatzietatik arratsaldeko ordu biak bitartean, eta horretarako, HAMABOST EGUTEGI-EGUNeko epea izango da, BAOn argitaratutako egunetik zenbatzen hasita.

Proposamenak behar den bezala aztertu ahal izateko, ONDARROAKO UDALEKO Idazkaritza Nagusian izango dituzte ikusgai prozeduraren oinarriak, bulego orduetan hain zuzen.
Lizitatzaileek itxitako bi gutunazaletan aurkeztuko dituzte proposamenak, lakratuta eta zigilatuta, nahi izanez gero; era honetara aurkeztu ere:

LEHENENGO GUTUNAZALA:
Izenburua: **"ONDARROAKO UDALEKO ZERGEN ETA ZUZENBIDE PUBLIKOKO BESTELAKO DIRU-SARRERAREN BETEARAZTE-BIDEZKO DIRU-BILKETARAKO ZERBITZUA.** LEHIAKETA BIDEZKO KONTRATAZIOAN PARTE HARTZEKO PROPOSAMENA".

Gutunazalaren azpititulua "Dokumentu orokorrak" izango da, eta, bertan, honako hauek sartuko dira:

a) NANaren kopia: pertsona fisikoa bada, lizitatzailearena, eta, pertsona juridikoa bada, proposamena izenpetu duenarena.

b) Si la empresa es persona jurídica: Escritura de constitución o modificación debidamente inscrita en el Registro Mercantil.

c) Declaración Jurada en la que el licitador afirma no hallarse comprendido en los supuestos previstos en el Art. 20 de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas y de no estar incurso en causa de prohibición para contratar con éste Ayuntamiento.

d) Certificación de estar al corriente de pago de las obligaciones tributarias.

e) Certificación acreditativa de hallarse el contratista al corriente del pago de las cuotas de la Seguridad Social de los trabajadores de la empresa.

f) Si el contratista estuviera inscrito en el registro de Contratistas del Estado o en el del Gobierno Vasco, estará eximido de presentar los apartados a) b), c), d) y e), todo ello sin perjuicio de que dicha documentación le pueda ser exigida al adjudicatario con posterioridad.

g) Relación de contratos suscritos con otras administraciones locales de la Comunidad Autónoma del País Vasco, para la realización de tareas de recaudación ejecutiva de tributos en los tres últimos ejercicios. No admitiéndose y por tanto siendo causa de exclusión, el no acreditar al menos tres contratos en los que se esté utilizando efectivamente la normativa recaudatoria foral aplicable.

SOBRE SEGUNDO:

Se titulará del mismo modo que el anterior y se subtitulará OFERTA ECONÓMICA y MEMORIA DESCRIPTIVA y contendrá los siguientes documentos:

A) Proposición económica ajustada al siguiente modelo:

MODELO DE PROPOSICION

Don __________________ con domicilio en _________titular del DNI. número ___________ expedido en ______________, y en nombre propio

b) Enpresa pertsona juridikoa bada: eraketa-eskritura edo aldaketa-eskritura, Merkataritzako Erregistroan behar bezala erregistratuta.

c) Zinpeko aitorpena; bertan, lizitatzaileak egiaztatu beharko du ez dagoela Herri Administrazioen Kontratuen Legearen 20. artikuluan aurreikusitako egoeretan, eta, halaber, inolako debekurik ez duela udal honekin kontratatzeko.

d) Zerga-betebeharren ordainketak egunean dituela ziurtatzen duen agiria.

e) Kontratistak enpresako langileen Gizarte Segurantzako kuoten ordainketak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria.

f) Kontratista izena emanda badago Estatuko kontratisten erregistroan edo Eusko Jaurlaritzakoan, ez du aurkeztu beharrik izango a) b), c), d) eta e) ataletako dokumentazioa; hala eta guztiz ere, geroago eskatu ahal izango zaio esleipendunari aipatutako dokumentazioa.

g) Euskal Autonomia Erkidegoko beste toki-administrazio batzuekin izenpetutako kontratuen zerrenda, azken hiru ekitaldietako zergen betearazte-bidezko diru-bilketako lanak gauzatzeko. Aplikatu beharreko diru-bilketaren foru-araudia behar bezala erabiltzen den hiru kontratu aurkeztu beharko dira, gutxienez; hala izan ezean, ez da eskaintzarik onartuko, eta, beraz, eskaintza baztertzeko arrazoia izango da.

BIGARREN GUTUNAZALA:

Aurrekoaren izenburu bera izango du, eta azpititulua, berriz, honako hau: ESKAINTZA EKONOMIKOA ETA DESKRIBAPEN-MEMORIA. Gutunazal horretan honako hauek sartuko dira:

A) Proposamen ekonomikoa, ondoren agertzen den ereduaren arabera:

PROPOSAMEN-EREDUA

______________jaunak, ___________(a)n bizi denak, _____________zenbakidun NANaren titularrak ___________________(e)(a)n egindakoa, bere izenean

(o en representación de ____________________ según acredita con poder debidamente bastanteado que acompaña), manifiesta:

(edo ______________(a)ren ordezkaritzan; honekin batera aurkeztu duen eta behar bezala askietsita dagoen ahalordearen bidez egiaztatu duen moduan), honakoa adierazi du:

1º. Que, ha tenido conocimiento de la convocatoria para la contratación por concurso de la PRESTACIÓN DE SERVICIOS EN MATERIA de recaudación ejecutiva de los tributos y otros ingresos de derecho público del AYTO DE ONDARROA.

1. ONDARROAKO UDALEKO zergen eta zuzenbide publikoko bestelako diru-sarreren betearazte-bidezko diru-bilketarako zerbitzua lehiaketa bidez kontratatzeko deialdiaren berri izan duela.

2º. Que ha examinado los Pliegos de Condiciones Técnicas y Económico-Administrativas del mismo.

2. Kontratazio horretarako baldintza teknikoen nahiz ekonomia- eta administrazio-baldintzen agiriak aztertu dituela.

3º. Que encuentra de su conformidad y acepta íntegramente y sin variación todos éstos documentos.

3. Dokumentu horiekin guztiekin bat datorrela, eta guztiak oso-osorik eta inolako aldaketarik gabe onartzen dituela.

4º. Que se compromete a llevar a cabo la ejecución del servicio y asistencia citados con estricta sujeción a todos los documentos y en especial al Pliego de Cláusulas Administrativas y de Condiciones Económicas, mediante el cobro al Ayuntamiento de Ondarroa de los importes que resulten por los conceptos que se indican conforme a lo establecido en la cláusula 4 de este pliego y que se concretan en la siguiente cantidad y porcentajes (IVA no incluido):

4. Aipatutako zerbitzua eta laguntza gauzatzeko konpromisoa hartzen duela, eta agiri guztiak eta, bereziki, administrazio-baldintzen eta baldintza tekniko eta ekonomikoen agiriak hertsiki jarraituko dituela; horretarako, agiri honetako 4. klausulan ezarritakoaren arabera, adierazten diren kontzeptuengatik dagozkion zenbatekoak kobratuko dizkio Ondarroako Udalari. Zenbateko horiek, hain zuzen, honako kopuru eta ehuneko hauek izango dituzte (BEZ ez dago barne):

1.- _______ por cien (%) del principal de la recaudación liquida obtenida en la gestión.

1.- Kudeaketan bildutako likidoaren printzipalaren %_____

2.-________ por cien (%)los intereses de demora cobrados.

2.- Kobratutako berandutza-interesen %____

(Lugar, fecha y firma)

(Tokia, data eta sinadura)

EL LICITADOR

LIZITATZAILEA

Debiendo dicho documento ir debidamente firmado por el licitador, de manera que de no cumplirse dicho requisito, el órgano de contratación procederá de forma automática a la exclusión de la oferta.

Dokumentu hau lizitatzaileak behar bezala sinatu behar du, eta, horrela bete ezik, kontratazio-organoak eskaintza automatikoki baztertuko du.

B)Memoria descriptiva;

B)Deskribapen-memoria;

Memoria descriptiva del desarrollo de los trabajos de asistencia y colaboración, con descripción de los medios materiales y humanos, teniendo en

Egin beharreko aholkularitza- eta lankidetza-lanak deskribatuko dituen memoria bat; baliabide materialak eta giza baliabideak berariaz deskribatu beharko dira,

cuenta lo dispuesto en la base 2ª; con especial mención de la experiencia del contratista (o de su personal directivo, en el caso de personas jurídicas).

2. oinarrian ezarritakoa kontuan hartuta. Horrez gain, aipamen berezia egingo zaio kontratistak duen esperientziari (edo, zuzendaritza-taldeko langileen esperientziari, pertsona juridikoak badira).

## 17.- TRAMITE DE ADJUDICACIÓN

La apertura de plicas tendrá lugar a las 12.00 horas del sexto día hábil siguiente (si éste fuera sábado o domingo se pasará al siguiente hábil) al plazo de entrega de las ofertas, en acto público celebrado en la Sala de Comisiones deL Ayuntamiento de Ondarroa ante el organo de contratación.

El organo de contratación acordará la remisión de las plicas presentadas a los Servicios Técnicos para su estudio y posterior adjudicación por dicho organo.

## 17.- ESLEIPENAREN IZAPIDETZEA

Eskaintzak aurkezteko epea bukatu eta seigarren astegunean irekiko dira gutunazalak (larunbata edo igandea izanez gero, hurrengo astegunean), eguerdiko 12.00etan; prozedura hori Ondarroako Udaleko batzorde-aretoan egingo da, kontratazio-organoaren aurrean, eta jendaurreko ekitaldia izango da.

Aurkeztu diren itxitako gutunazalak zerbitzu teknikoei igortzea erabakiko du kontratazio-organoak, aipatutako organoak aztertu eta, gero, esleitu ditzan.

**Criterios para la adjudicación:**

Para la evaluación de las ofertas se valorarán los siguientes aspectos:

**Primero.-**Memoria sobre la prestación del servicio, relacionando medios materiales y humanos que se adscribirán al mismo.
Se valorará la capacidad y desarrollo técnico de la aplicación informatica que se proponga para realizar el servicio, así como la acreditación de la compatibilidad y portabilidad de los datos y ficheros con el aplicativo financiero-contable del área económica del Ayuntamiento, así como su adaptación para su implantación en el sistema municipal. Hasta 50puntos.

**Segundo**.- Mejoras económicas consistentes en la reducción de los porcentajes establecidos como contraprestación económica a cargo del adjudicatario. Hasta 50puntos. (Valorándose hasta un máximo de 35 puntos la mejor oferta en el porcentaje sobre el principal cobrado y hasta 15 puntos por la baja en los intereses de demora)

**Esleipen-irizpideak:**

Eskaintzak honako alderdi hauen arabera baloratuko dira:

**Lehenengoa.-** Zerbitzu-emateari buruzko memoria, eta bertan zerrendatuta, zerbitzua emateko beharrezko diren giza baliabideak eta baliabide materialak.
Baloratuko da, halaber, zerbitzua emateko proposatu den informatika-aplikazioaren ahalmena eta garapen teknikoa, bai eta egiaztatzea ere datu zein fitxategi guztiak Udaleko ekonomia-sailak darabilen finantza- eta kontabilitate-aplikazioarekin bateragarriak direla eta batetik bestera eramangarri, hain zuzen ere, udal-sistemaren baitan txertatzeko modukoak izatea baloratuko da. Gehienez ere, 50 puntu.

**Bigarrena.-** Hobekuntza ekonomikoak, hau da, zerbitzuaren ordainetan esleipendunaren kargura zehaztutako ehunekoak txikitzea. Gehienez ere, 50 puntu. (Kobratutako printzipalaren gaineko portzentaje-eskaintzarik onenari 35 puntu emango zaizkio, gehienez ere, eta berandutza-interesetan beheranzko eskaintzengatik, 15 puntu, gehienez ere).

## 18.- ADJUDICACIÓN Y FORMALIZACIÓN DEL CONTRATO

El contrato se perfeccionará mediante la adjudicación realizada por el órgano de

## 18.- KONTRATUA ESLEITZEA ETA FORMALIZATZEA

Kontratua kontratazio-organoak egindako esleipenaren bitartez burutuko da.

contratación.

La adjudicación será notificada al adjudicatario, el cual, en el plazo de quince días naturales contados desde el siguiente al de la notificación, deberá realizar las siguientes actuaciones:

a) Constituir en el Ayuntamiento la garantía definitiva.

b) Comparecer, en este Ayuntamiento para formalizar el contrato en documento administrativo.

1. En el caso de que el contrato fuera adjudicado a una Agrupación de Empresas deberán estas acreditar la constitución de la misma, en escritura pública, dentro del plazo otorgado para la formalización del Contrato, y NIF asignado a la Agrupación.

2. Cuando por causas imputables al contratista, no pudiere formalizarse el contrato dentro del plazo señalado, se resolverá el mismo con pérdida de la fianza e indemnización de los daños y perjuicios ocasionados, pudiéndose adjudicar al licitador o licitadores siguientes a aquél, por orden de sus ofertas, contando con la conformidad del nuevo adjudicatario.

5. El contrato se ejecutará con sujeción a las cláusulas del mismo y de acuerdo con las instrucciones que para su interpretación diera al contratista el Ayuntamiento.

6. La fecha de comienzo de los trabajos será la del siguiente al de la firma del documento de formalización del contrato.

7. Si durante el desarrollo del trabajo, se detectase la conveniencia o necesidad de su modificación o la realización de actuaciones no contratadas, se actuará en la forma prevista en los artículos 59, 101, 210 d) del TRLCAP. Cada vez que se modifiquen las condiciones contractuales, el contratista queda obligado a la actualización del Programa de Trabajos.

8. En caso de producirse una suspensión del contrato, se estará a lo estipulado en los artículos 102, 214 a) y b) del TRLCAP y normas de desarrollo. Si el ayuntamiento acordara una

Esleipena esleipendunari jakinaraziko zaio eta honek zenbait jarduketa gauzatu beharko ditu, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita hamabost egutegi-eguneko epean, honakoak hain zuzen ere:

a) Udalean behin betiko bermea ematea.

b) Udaletxera agertzea kontratua administrazio-dokumentuan formalizatzeko.

1. Kontratua enpresa-elkarte bati esleituz gero, elkarte horretako enpresek egiaztatu beharko dute, eskritura publikoaren bidez, enpresa-elkartea eratu izana kontratua formalizatzeko emandako epearen barruan, eta elkarteari esleitutako IFZ ere aurkeztu beharko da.

2. Kontratistari dagozkion arrazoiak direla-eta, kontratua adierazitako epean formalizatu ezin bada, suntsitutzat emango da, aurreratutako fidantza galduko du kontratistak eta eragindako kalte-galerak ordaindu beharko ditu; horrez gain, kontratua esleitu ahal izango zaie haren ondorengo lizitatzaileari edo lizitatzaileei, horien eskaintzaren hurrenkeraren arabera, betiere esleipendun berri hori erabakiarekin ados badago.

5. Kontratua gauzatzeko, bertan agertzen diren baldintzak bete beharko dira, eta agiria interpretatzeko Ondarroako Udalak kontratistari emandako jarraibideak bete.

6. Lanak hasiko dira kontratua formalizatzeko dokumentua sinatu eta hurrengo egunean.

7. Lanak egiten diren bitartean, aldaketaren bat edo kontratatu gabeko jarduketaren bat egin beharra, gertatuz gero, edo komenigarria ikusiz gero, HAKLTBren 59., 101. eta 210 d) artikuluetan aurreikusitako moduan jokatuko da. Kontratu-baldintzaren bat aldatu beharra gertatzen den bakoitzean kontratistak ere bere lan-programa eguneratu beharko du.

8. Kontratua eteten bada, HAKLTBren 102., 214 a) eta 214 b) artikuluetan eta horiek garatzen dituzten arauetan ezarritakoaren arabera jokatuko da. Udalak lanak etetea erabakiz gero, berriz, dagokion akta

suspensión de los trabajos, se levantará la correspondiente Acta de Suspensión.

egingo da eten hori jasota geratzeko.

9. El órgano de contratación determinará si la prestación realizada por el contratista se ajusta a las prescripciones establecidas para su ejecución y cumplimiento, disponiendo para tal fin de las prerrogativas establecidas en el artículo 213 del TRLCAP.

9. Kontratazio-organoak zehaztuko du kontratistak egindako prestazioa bat datorren ala ez ezarritako aginduekin, hala zerbitzua gauzatzeari dagokionez nola betetzeari dagokienez; horretarako, hain zuzen, HAKLTBren 213. artikuluan ezarritako eskumenak baliatuko ditu.

En el caso de falta de formalización del contrato por causas imputables al contratista, el Ayuntamiento puede acordar la resolución del mismo, previa audiencia del interesado, con indemnización de daños y perjuicios.

Kontratistari dagozkion arrazoiak direla-eta kontratua formalizatzen ez bada, Udalak suntsiaraz dezake kontratua, kalte-galerak ordainduz; aldez aurretik, ordea, interesdunari entzungo zaio.

**19.- JURISDICCIÓN COMPETENTE**

Las cuestiones litigiosas que se deriven del contrato se entenderán sometidas a la jurisdicción contencioso-administrativa, no obstante lo cual, las partes pueden acordar el sometimiento de sus litigios a arbitraje, conforme a lo establecido en la legislación vigente.

**19.- ESKUMENA DUEN JURISDIKZIOA**

Kontratu hau dela-eta sor daitezkeen auzigaiak administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren mendean egongo dira; hala ere, indarrean dagoen legedian ezarritakoaren arabera, eta bi aldeek horrela erabakiz gero, auzigaiak konpontzeko bitartekaritzara jo dezakete.

**20. PLAZO DE GARANTIA**

El plazo de garantía será de 1 año contado a partir de la finalización del plazo para la ejecución del contrato o, en su caso, con sus prorrogas.

**20. BERMEAREN EPEA**

Bermearen epea urtebetekoa izango da, kontratua burutzeko epea bukatzen denetik edo, hala badagokio, bere luzapenetatik zenbatzen hasita.

**21. TRATAMIENTO DE DATOS DE CARÁCTER PERSONAL.-**

1. Si el contratista ha de prestar servicios que impliquen el tratamiento de datos de carácter personal, se deberá estar a lo especificado en esta cláusula.

2. Por tratamiento de datos de carácter personal se entenderán las operaciones y procedimientos técnicos de carácter automatizado o no, que permitan la recogida, grabación, conservación, elaboración, modificación, bloqueo y cancelación, así como las conexiones de datos que resulten de comunicaciones, consultas, interconexiones y transferencias que afecten a cualquier información

**21. DATU PERTSONALEN TRATAMENDUA**

1. Kontratistak datu pertsonalen tratamendua eskatzen duten zerbitzuak ematen baditu, klausula honetan arautūtakoa bete beharko du.

2. Datu pertsonalen tratamendutzat hartuko da informazioa biltzea, grabatzea, gordetzea, sortzea, aldatzea, blokeatzea eta baliogabetzea ahalbidetzen duen edozein eragiketa edo prozedura tekniko (automatikoak nahiz automatikoak ez direnak), bai eta edozein jakinarazpen, kontsulta, elkarlotura eta transferentziaren ondorioz sortzen diren datu-loturak ere, identifikatutako edo identifikatu gabeko pertsona fisikoei buruzko edozein

concerniente a personas físicas identificadas o identificables.

3. El contratista únicamente tratará los datos conforme a las instrucciones del responsable del tratamiento.

4. Los datos personales objeto del tratamiento serán utilizados, única y exclusivamente, para la realización del objeto del contrato, no pudiendo ser destinados a finalidad diferente a la señalada.

5. Ninguno de los datos personales tratados como consecuencia de este contrato será facilitado a terceros. A tal efecto, el contratista se compromete a no revelar, transferir, ceder o comunicar dichos datos o los ficheros creados con los mismos, ya sea verbalmente o por escrito, por medios electrónicos, papel o mediante acceso informático, ni siquiera para su visualización, a ningún tercero.

6. El adjudicatario y todo el personal que intervengan en la prestación objeto del contrato quedan obligados por el deber de secreto a que se refiere el artículo 10 de la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de datos de carácter Personal. Este deber perdurará aún después de que el contrato se haya extinguido bien por su cumplimiento bien por su resolución.

7. El adjudicatario se compromete a adoptar las medidas técnicas, administrativas y organizativas exigidas por la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal, necesarias para garantizar la seguridad de los datos de carácter personal tratados para la realización de los trabajos objeto de este contrato:

a) A este respecto, la empresa adjudicataria deberá entregar al Ayuntamioento de Ondarroa, antes del inicio de los trabajos una relación con el nombre, apellidos, funciones y lugar donde van a desarrollar el trabajo de todo el personal que tenga acceso a los datos de carácter personal. Si

informazioari eragiten dietenak.

3. Kontratistak datuak erabili ahal izateko, ezinbestekoa izango du tratamendu-arduradunaren jarraibideak betetzea.

4. Erabiliko diren datu pertsonalak kontratuaren xedea betetzeko erabiliko dira, eta soilik horretarako, beraz, ezingo dira aipatutako xedea ez den beste helburu bat betetzeko erabili.

5. Kontratu hau dela-eta erabiliko den datu pertsonal bakar bat ere ez da hirugarrenen esku egongo jarriko. Horretarako, kontratistak hitza eman behar du ez dizkiola datu horiek edo horiekin sortutako fitxategiak beste pertsona bati erakutsiko, ezta ikusteko ere, ez transferituko, utziko edo jakinaraziko, ez ahoz, ez idatziz, ez eta baliabide elektroniko, papera edo informatika bidezko sarbidea erabiliz ere.

6. Esleipenduna eta kontratu-gai den zerbitzuan esku hartzen duten langile guztiak informazioa isilpean gordetzera behartuta daude, Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 10. artikuluan araututakoari jarraiki. Betebehar horrek bere horretan jarraituko du, baita kontratua iraungitzen denan ere, dela bete delako dela suntsitu delako.

7. Esleipendunak konpromisoa hartuko du abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak (Datu Pertsonalak Babesteari buruzkoa) eskatutako teknika-, administrazio- eta antolaketa-neurriak ezartzeko, kontratu-gai diren lanak egitean erabiliko diren datu pertsonalen segurtasuna bermatzeko beharrezko direnak, hain zuzen:

a) Horri dagokionez, lanak egiten hasi aurretik, enpresa esleipendunak zerrenda bat eman beharko dio Ondarroako Udalari, eta, bertan, datu pertsonalak erabili ahal izango dituzten langile guztien izena, abizenak, funtzioak eta lan egiteko tokia zehaztuko ditu. Kontratuaren betetze-aldian, beste langile batzuk hartzea edo baja ematea beharrezkoa izanez gero, enpresa

durante el curso de la ejecución del contrato fuera necesario incorporar o dar de baja a personal, la empresa adjudicataria entregará una nueva relación en un plazo máximo de una semana desde que sucediera este hecho. Tanto la empresa adjudicataria como todo el personal que figure en estas relaciones deberán comprometerse formalmente por escrito a mantener el secreto profesional con respecto a los datos tratados.

b) La adjudicataria se obliga a implementar las medidas de seguridad con respecto a los centros de tratamiento, locales, equipos, sistemas y programas.

c) Una vez finalizada la prestación objeto del contrato deberán devolverse todos los soportes o destruir o borrar todos los ficheros que contengan datos de carácter personal por parte del adjudicatario. La destrucción se realizará de tal manera que sea imposible aplicar cualquier proceso de recuperación.

8. El Ayuntamiento de Ondarroa se reserva el derecho a realizar controles durante el período de vigencia del contrato para verificar el cumplimiento de las medidas de seguridad establecidas y poder adoptar las medidas correctoras oportunas, en su caso.

esleipendunak zerrenda berria aurkeztu beharko du, gehienez ere, aldaketa gertatzen den unetik hasita aste beteko epean. Bai enpresa esleipendunak, bai zerrenda horietan agertzen diren langile guztiek erabilitako datuak isilean gordeko dituztela adieraziko dute eta idatzizko konpromisoa sinatu beharko dute isiltasun profesionalaren seinale.

b) Esleipendunak beharrezko diren segurtasun-neurriak ezarri beharra du elementu hauetan guztietan: tratamendu-zentroak, lokalak, ekipoak, sistemak eta programak.

c) Kontratazio-gai den zerbitzua amaitzean, esleipendunak euskarri guztiak itzuli beharko ditu, edo, bestela, datu pertsonalak dituzten fitxategi guztiak suntsitu edo ezabatu beharko dira. Suntsitze-prozesua, hain zuzen, modu berezi batean egingo da, berreskuratze-prozesurik martxan jarri ahal ez izateko.

8. Kontratu hau indarrean den bitartean, Ondarroako Udalak zenbait kontrol egin ahal izango ditu, zehaztutako segurtasun-neurriak betetzen direla egiaztatzeko eta, beharrezko balitz, zuzenketa-neurriak hartzeko.